




3- BEGIRATU BEHEKO MAPARI, ETA ERANTZUN (2 puntu)

La descolonización de África Potencias descolonizadoras



1. Irudiaren testuinguruan, azaldu laburki zeri esaten diogun “Afrikaren deskolonizazioa”:
2. Laburki, aipatu zer faktorek izan zuten eragina Afrikaren deskolonizazioan eta zer motatakoak izan ziren faktore horiek.
3. Zer izan zen Bandungeko Konferentzia? Frantziaren zer protektoratuk lortu zuten independentzia Bandungeko Konferentziaren ondoren?
4. Zer da Nazioen Mankomunitatea edo Commonwealth? Zer erlazio du aurkeztutako maparekin?

4- LOTU HITZ BAKOITZA BERE DEFINIZIOAREKIN (2 puntu)

1- Gerra Hotza	A- Nazioarteko erakundea, Parisko Konferentzian eratua 1919ko apirilean, Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren, Europak nozitu berria zuen gerra bezalako beste bat saihesteko helburuarekin.
----------------	--



HISTORIA OROKORRA

HISTORIA OROKORRA

2- Solidaritatea sindikatua	B- Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) eta Energia Atomikoaren Erkidegoa (EURATOM) sortu zituen tratatua.
3- Nazioen Elkartea	C- XX. mendean, 1945etik komunismoa erori arte (1989 eta 1991 bitartean) mendebaldeko bloke kapitalistaren (Estatu Batuak buru) eta ekialdeko bloke komunistaren artean (Sobietar Batasuna buru) izandako aurrez aurrekoa.
4- Erromako Tratatua	D- 1980an, Enpresarteko Greba Batzordea, Lech Walesak zuzendua, eta gainerako greba-batzordeak mugimendu sindikal berriaren sorgune bihurtu ziren.
5- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala	E- Sobietar Batasunean Mikhail Gorbaxov boterera iritsi ondoren (1985) gauzatu zen erreforma-politika. Ezaugarri nagusiak hauek izan ziren: Mendebaldeko blokeko herrialdeetara irekitzea, sistema ekonomikoa nolabait liberalizatzea eta informazio-gardentasuna.
6- Schengen espazioa	F- Sir Winston Churchill-ek sortutako terminoa. Hala izendatu zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren Sobietar Batasunaren eragin militar, politiko eta ekonomikoren pean geratu ziren herrialdeak eta demokrazia kapitalistek gobernatutako mendebaldeko herrialdeak bereizten zituen muga fisikoa ez ezik ideologikoa ere.
7-Autarkia	G- Deklarazio-dokumentu bat da, Nazio Batuen Batzar Orokorrek bere 217A (III) Ebazpenean onartua 1948ko abenduaren 10ean, Parisen; 30 artikulutan jasotzen ditu oinarritzotzat jotzen diren giza eskubideak, San Frantziskoko gutunean oinarritua (1945eko ekainaren 26an).
8- Antisemitismoa	H- Ideia arrazistak praktikan jartzea eta juduen aurka aplikatzea da. Juduak jazartzera iristen da. Nazismoaren oinarri ideologikoetako bat izan zen.
9-Perestroika	I- 1985eko ekainaren 14an sortu zen, bost herrialdek (Alemania, Belgika, Frantzia, Luxenburgo eta Herbehereak) akordio bat sinatu zutenean. Bost urte geroago, barne-mugetako kontrolak praktikan nola ezabatuko ziren zehaztu zen. Eta konpentsazio-neurri batzuk ere ezarri zituen, beharrezkoak baitziren kanpo-mugetako kontrolak indartzeko, bisak modu uniformeak egiteko prozedura zehazteko, droga-trafikoaren aurka borrokatzeko eta informazioa trukatzeko sistema komun bat ezartzeko.

